

2019ko urtarrilak 16ko Mahai Negoziatzailearen laburpena

Hauk izan ziren atzoko bileran Haurreskolak Partzuergoak eta sindikatuok jorratu genituen gaiak:

Kudeaketa langileei dagokienean:

- **Lanpostuak Baloratzeko Batzordea (LBB)** eratuko da eta 3 sindikatuok ordezkari bana izango dugu bertan (bi astean behin bilduko da). Batzorde honen helburua langileen funtzioak eta hauen lanpostuen zerrenda ezartzea eta Hezkuntzako langileekiko soldatak eta lan kategoriak parekatzeko proposamen bat osatzea da. Bertan egindako lana Mahai Negoziatzailean eztabaidatu eta adostuko da. Hilaren 24an eratuko da LBBa. Ohi bezala, **enpresak egin beharreko lana gure gain** uzten du.
- **Kontratazioa:** enpresak **ez ditu ordezkapenak lehenengo egunetik beteko** (lankideen aldarrikapen eta behar garrantzitsua izan arren). Gainera, **murrizketak ordezkatu gabe** jarraitzen duenez, **lankideen lan zamak gora** egiten jarraitzen du. Egoera honen aurrean, kudeaketa langileen **ordezkoen araudia eta barne sustapenerako araudien proposamenak** berregitea eskatu diogu enpresari, edukiz eta zehaztapenez bete ditzan. Era berean, langile hauen **lan poltsa propioak** sortzea berriz eskatu dugu. Momentuz, nahiz eta eskaera hauk ez diren berriak, **ez dago aurrerapausurik** Haurreskolak Partzuergoaren aldetik.

Borondatezko eszedentziak (Lan Hitzarmeneko **47. artikulua**):

2017ko urtarrilaren 15ean enpresari egin genion proposamena mahai gainean jarri diogu berriz ere: hezitzaileok borondatezko eszedentzia eskatu ondoren, bi urtez kontratua eta lantokia mantentzea. Dagoeneko **2 urte** pasa diren arren, **oraindik ez dugu inongo erantzunik jaso** Haurreskolak Partzuergoaren aldetik.

Lan Hitzarmenak dioena bere horretan bete beharrean, enpresak behin-behineko hezitzaileon **borondatezko eszedentzia eskaerak ez ditu onartzen**, bere **ardura nagusia** hezitzaileak eszedentzia bukatu ondoren lantokira nola bueltatzea baita. STEILASen **ez dugu etsiko borroka honetan**, eta orain dela 2 urte egindako proposamena berresten jarraituko dugu.

Hezitzaileen ordezkapenak:

Enpresak dituen baliabideekin **ordezkapenak betetzeko zailtasunak** dituela onartu digu berriz ere eta aurreko ikasturteetan udaberri garaitik aurrera izan dituen **arazoak konpondu nahi omen** dituela ere azpimarratu zigun. Horretarako, **proposamen batzuk** mahai gainean jarri ditu, besteak beste:

- Kontratuak lurraldeka banatu beharrean, zonaldeka egitea.
- Aurreikusitako ordezkapenak aste bat lehenago banatzea.

Hurrengo Mahai Negoziatzailetan **eztabaidatu beharreko** gaia izango da, azkenaldian ordezkapenen kudeaketak **izugarri baldintzatu baitu hezitzaile ordezkoen** egoera.

Txanda egunak:

Enpresak ikasturte honen hasieran **aldebakarrez** ordezkoei dagozkien txanda egunak kalkulatzeko **irizpidea aldatu zuen** (105 lan egun txanda egun bat hartzeko eta 210 bigarrenearako). Atzoko bileran **orain arte erabilitako irizpidea** mantentzea adostu genuen: lan egunak/105 eginda emaitza 0,5 eta 1,4 bada, txanda egun bat; 1,5etik gora bada, 2.

Beste aldagai batzuk, berriz, **adostu gabe** daude oraindik: egunen aukeraketa noiz egin eta nola aldatu daitekeen, haurreskola batean zenbat langilek hartu ditzaketan egunak batera... **Gure borroka** enpresak aldebakarrez hartutako erabakiak saihestea eta hauek bertan behera uztea da. Gaur egun, **oso zaila da aurrera egitea** negoziazio zintzo batean.

Enpresari **edukiz betetako proposamen zintzo eta aurrerakoia** eskatu dizkiogu, hamaikagarrenez, **alferrikako joan etorrietan** denbora gehiago galdu beharrean. Haurreskolak Partzuergoko **langile guztien lan baldintzetan aurrerapausuak** emateko borrokan jarraituko dugu, tinko!

Euskal Herrian, 2019ko urtarrilaren 17an.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus